

Hitz hutsak ez dira nahikoak penstamendu abt adierazteko denbora behar dute. Esaldiaren denbora pentsamenduaren adierazpenaren **osagaia** da.

2) Indexikoekin pentsamendu bera adierazteko ordezkagarritasunaren beharra dago: “gaur euria ari du”, “hemen euria ari du” besteak gauza bera adierazi nahi badu, ordezkatu beharko du→”hor euria ari du”. Ordezkagarritasuna ebraz, denbora eta espazioan egin behar da.

Atzo norbaitek hori esan bazuen, orainaldia egokitu beharko litzateke. “Gaur euria ari du” eta “atzo euria ari zuen” adierazpenek penstamendu bera adieraziko du. Baina, ordezkagarritasunaren printzipiaoren arabera, perpaus abten zentzua, perpausaren zatien zentzuen batuketa da. ‘Gaur’ eta ‘atzo’ ordezkariak ez dute zentzu berarik. Badirudi Fregek esaten duenaren ondorio abt dela, atzoe ta gaur indexikoek zentzu bera dutela, baina ez dirudi hori hala denik batak esaktzen baitu perpausak esaten den eguna izatea eta besteak beranduagoko egun bat izatea.

“Gaur” gaurerdiro aldatzen den erreferentzia litzateke hitz mota horiek, aldiz zentzua mantentzen da.

Galdera: badirudi ‘gaur’ eta ‘atzo’ zentzu bera dutela

Indexikoek dituzten perpausak ez dituzte pentsamendu osoa adierazten. Hizkuntzaz kanpoko elementuen beharra dute keinuak, espazioa, denbora... hain zuzen ere.

Karakterea (Kaplan) zentzua litzateke.

‘Hemen’ ‘hor’ delimitatzeak zailtasun gehiago ekartzen ditu, espazio konkretu bat egiten zaion erreferentzia mugatzea testuinguruaren eta momentuaren arabera baita. Anbiguoagoa da, ez da ‘gaur’ bezala, gaurerdiaren delimitatzen den indexikoa dena.

Alternatiba: Konposizionalitate printzipioa: proposizio batzuetan ez dago objekturik. Zentzu ber

Komun dutena egun ebrari buruz hitz egiten dutela litzateke. ‘atzo’, gaur.. bezalako hitzek (indexikoek alegia) adierazten duten proposizioa ez da Fregek pentsamendu oso bezala identifikatzen duena.

F: proposizioetan ez dago objektuen beharrik, zentzua da beharrezkoa, penstamendu osoa. Ez dago egunen objekturik

P: Egunen objektue

De re: hiru perpausak komun duten penstamendua litzateke, gauzen (objektuen) pentsamendu ez fregerriarra alegia.

The problem of the essential indexical

Pentsamenduaren nozioaren inguruan, Russellen teoriari helduko dio Perryk. Artikuluaren gaia indexiko esentzialen auzia da. Zehazki, ustean aldaketek eragiten duten ekintza aldaketa eta hauen azalpena/komunikazioa indexiko esentzialik gabe. Azal dezakegu uste aldaketa hori ‘ni’ indexikoa erabili gabe?

Usteak vs baiezpenak

BAIEZPENAK	USTEen iturriak	<i>Noiz da uste bat, uste berdina? Noiz aldatzen da? Usteen aldaketek ze eragin dute baiezpenetan. Usteek jokabidean dute eragina. Arrazoi (motive) batzuk ditugure jarrean eragiten dutenak</i>
Esaldia- Perpaus	Hautemanez	
	Oroimena	
	Inferentzia	
	Komunikazio/testuingurua	

Perry supermerkatuan dago eta azukre arrasto bat ikusten du. Azukre poltsa daraman erosleak desastre bat egiten ari dela ustez, azukre arrastoa jarraitzen du desastrea egiten ari den pertsonari abisatzeko, baina, autore aurkitzea ezinezkoa zirudien. Bat-batean, ustea aldatu (Perry bera zela desastrea egiten ari zen hura konturatu) eta bilatzeari utzi zion.¹

Hau da, uste aldaketa batek (azukre poltsa daraman erosleak desastre bat egiten ari da→ni desastre bat egiten ari naiz) Perryrengan ekintza aldaketa bat eragiten du. Aldaketa: deskripzio definitutik indexikora (“ni”). Beraz, ezberdintasuna ere DD-ko usteak eta indexiko usteak direnean. Istorioa kontatzerako orduan, garrantzizkoa da “I” indexikoa, horren gabeziak ez baitu azaltzen ekintza aldaketa, beraz, esentziala dirudi.

Tesia: indexiko esentzialek auziak ekartzen dituzte. Subjektuaren eta proposizioaren arteko harremana egia/faltsutasuna bezalako parametroetan neurtzearen ondorioz. Auziaren soluzioak ez dira: *de re* nozioa, egia/faltsutasun absolutuak testuingurura edo indexikora mugatuz. Soluzioa: usteen objektuak eta usteen egoerak ezberdintzea eta hauen arteko lotura ez dela hain estua konturatzea.

USTEEN KOKATZEA

2 adibideak planteatu:

- 1) *Irakaslea bilera ordua jarri orain. Bat-batean bulegotik mugitu.* Uste aldaketa batek eragin du ekintza aldaketa hori. Bileraren ordua iritsi da→ekintza eragin→bulegoan mugitu.

Adibidean subjektuei galdetzean, zer gertatu den indexikoen beharra izanen dute azalpena ematerako orduan, beraz, esentzialak dirudite. Izan ere, indexikorik gabe edo hauek ordezkatzuz gero, azalpena ez da berdina, beraz, hauen beharrezkotasuna dagoela dirudi.

USTE EGOERAK (indexikoak)

¹ Uste aldaketa (believe): konturatzea

Non?	Hemen, hor
Noiz?	Orain
Nor?	Ni

Betiereko esaldiak/ eternal sentences: badirudi usteak egiazko/falstu direla, baina horrela izanen balitz ez litzateke desadostasunik egonen.

Desadostasun hori usteen ikuspegi filosofiko tradizioaletik ezinezkoa da irtenbide bat ematea.

PROPOSIZIOEN DOKTRINA

Usteen filosofia tradizionalak defendatzen duena litzateke. Frege ikuspegi honen autoreetako bat litzateke. Usteak eta pentsamenduak proposizioen bidez adieraz daitezke. Proposizioak abstraktuak eta atemporalak dira.

Hiru printzipio nagusiak:

- 1) Usteak subjektu objektuen arteko harremana da.
- 2) Objektuek egia-balioa zentzu absolutuan dute. Ez dira subjektuarekiko egiatzko/falstu absolutuki. Proposizioak egia-baldintza berdina izan behar dute, egia balioa proposizioarekin identifikatzen da. Proposizioak objektu eta erlazio berdinei buruzkoak izateaz gain, kontzeptu bera inplikatzeko dituzte.
- 3) Objektuak nola indibidualizatzen ditugun, alegia, modu finean indibidualizatzea.
 - 2. eta 3. printzipioak objektuarekin zerikusia dute.

AUZIA

Indexiko esentzialak gatazkatsuak dira proposizioen doktrinarako.

“*I am making a mess*” perpausak ez du proposizio bat identifikatzen (identifikazioa: uste=proposizioa) , ez dira egiazko/falstu, pertsonaren arabera baizik. Hau da, **falta den osagai kontzeptuala/ missing conceptual ingredient** faltako litzateke. Proposizioen doktrinaren defendatzaileek falta den osagai kontzeptuala bilatu beharko lukete. Alegia, α eta A identifikatu beharko lukete (hori da falta den osagai kontzeptuala) eta A=Jonh Perry da.

- **Falta den osagai kontzeptuala:** “*T*”= niri modu berezian egokitzen zaidana bezala identifikatzea. Auzia niri eta soilik niri egokitu behar zaidan **kontzeptua** ezin dela ordezkatu da, ez da ordezkagarria modu orokorrean. Aldiz, proposizioen doktrinak ez du erantzun orokorrik eskatzen.
 - 1) Azalpen orokorrak indexikoaren beharra du ebrriro. nire ekintza eta uste aldaketa azaltzeko.
 - 2) Falta den osagai kontzeptuala niri egokitu behar zait, uste hori eskasa da eta ez du zertan beti horrela izan behar.

Irtenbidea beraz, usteen eredu alternatiboei erreparatzea izanen da.

‘DE RE’ USTEAK

Proposizioen doktrinaren hiru printzipioak **usteen txostena/ belief report** baten motibaziotik dator. Baina, indexiko esentzialen auziarekin topatzen gara, falta den osagai kontzeptualarena, hain zuzen.

Usteen txosten batzuk uelrtzeko modua ordezkapen bat ahalbide dezakeena:

Adb: “Patrick uste du dekanoa jakintsua dela.”. “Patrick uste du bere bizilaguna jakintsua dela”.

Nola identifikatu dekanoa=bizilaguna? Irtenbide hau ez da zilegia proposizioen doktrina kualifikagabearen ikuspuntutik. Ordezkanpena eta identifikazio kontzeptu baten bidez eman delako identifikazioa ematen bada. Hau da, berriro falta den osagai kontzeptualaren auzira itzuliko ginateke.

Ordezkapena ‘de re’ usteekin egitea, irtenbidea izan daiteke?

DE RE/ DE DICTO

Singularra	Orokorra
Objektuaren menpekora (<i>Joanes egotea</i>)	objektua independentea (<i>Ez dago Joanes</i>)
de re	de dicto
anbiguotasuna “gauzari buruz”	“hitzei buruzkoa”

Russell: edukia objektuei dagokie, enpiriari erreparatuz. “De re” proposizioak izateko, objektu bat egon behar du, bestelako mozorratutako DD da.

“*Joanes argi dago.*”

- Ez dago Joanes→ de dicto: proposizio orokorra (kuantifikatzaileak)
- Joanes dago eta hori egaizkoa da→ de re: proposizio singularra

Auzi nagusienetarikoa ‘de re’ usteak ‘de dicto’ uste bezala azaltzen saiatzea da, akatsa baita. De re usteak ez dira indexiko esentzialen irtenbidea, ‘de re’ proposizioak ez-indexikoak izaten jarraitzen dutelako.

PROPOSIZIO ERLATIBIZATUAK

Proposizio doktrinaren bigarren printzipioari heldu: *objektuek egia-balioa zentzu absolutuan dute. Ez dira subjektuarekiko egaizko/falstu absolutuki.*

Proposizioak erlatibizatzea proposatuko du auzia solbentatze aldera. Horretarako norzio berria aurkeztuko du: **truth at a time/ egia momentuan**, proposizioen doktrina zaharra aldatuko lukeena.

Truth at a time: proposizioak funtzio gisa hartu behar dira, indexikoetatik egia-balioetara(ko) funtzio gisa.

Elementu indexiko **usteen objektua** erantsi behar zaio. Beharrezkotasuna eta posibilitatea alde batera utziz (hau da, mundu posibleen semantika proposizioen doktrina betikotzen duena eta ondorioz, ind. esentzialen auzia solbenta ezin dezakeena), proposizioa berria bat bezala identifikatzea proposatuko

du. Egiazko edo faltsua dena denboraren eta pertsonaren arabera dena. Horrela, falta den osagai kontzeptuala ez litzateke beharrezkoa izanen.

Usteen testuingurua vs. ebaluaketaren testuingurua ezberdindu.

- Usteen testuingurua: momentuan eta pertsona horretan dagoen testuingurua.
- Ebaluaketa testuingurua: usteak ebaluatzen diren testuingurua.

Supermerkatuaren adibidean esan daiteke auzia, Perryk usteen testuingurua ez du uste, ebaluazio testuingurua denik. Zein da ustea? indexiko esentzialen auzia itzuli.

ESKURAGARRITASUN MUGATUA

Proposizio klase berria: **eskuragarritasun mugatutako proposizioak**. Zirkunstantzia berezietan adieraz daiteke (pertsona eta denbora bereizten). Zirkunstantzia berezi horiek pasata, eskuraezinak dira. Analogiaz esan daiteke, baina proposizioak jada eskuraezinak dira. Zirkunstantziak pasatzen direnean (uneoro pasatzean), proposizio berria adierazten du.

“Bilera orain hasten da.” Proposizio adierazi den momentua pasata, proposizio berria adieraziko litzateke, jada ez baita lehengo *orain*, ezin dugu proposizio bera adierazteko hitzik aurkitu. Irtenbide posible bat *“I”* edo *“orain”* ezabatzea bestearen mesederako litzaeke, ezinezkoa dirudiena.

Eskuragarritasun mugatutako proposizioak planteamendua erakargarria izan daiteke, baina metafisika egiteko. Adibidez, mundu posibleen nozio semantikoa defendatzen dutenentzako. Perryk mundu komun batean (ez mundu posibleetan) sinetsi. Beraz, metafisika baztertu eta eskuragarritasun mugatutako proposizioak baztertuko ditu.

BEGIBISTAKO SOLUZIOA

Indexikoek egia-balioan eragiten dute. Jendea (supermerkatuko adibidean zegoen jendea adibidez,) sailkatzen ditugu komunean zerbait dutelaren antzera. *Zer da komunean dutena?*

- Komunean ez dute *uste* bat, ezta *‘de dicto’* proposizio ustea.
- Komunean dutena **proposizio erlatiboa** da, horregatik sailkatzen ditugu horrela eta ez beste modu batean. *Zergatik sailkapen irizpidetzat hartu?*
 - 1) Azalpenak zein iragarpenak ematerako orduan, **erabilgarriak** direlako erabiltzen ditugu proposizio erlatiboak edo indexikoak.
 - 2) Uste egoerak indibidualizatzeko. Aintzat hartu behar da uste egoera berdinean egotea eta uste bera izatea ezberdina dela. Ni supermerkatuan egotea Perryk desastre bate giten ari denean (uste egoera berdina) ez du esan nahi uste bera partekatzen dugula (alegia, *I am making a mess*)

Perryren helburua: zer den argitu behar den zehaztea litzateke, hori argitzea gogoaren filosofiari dagokio.

Hiru proposamenen sintesia egin:

- 1) Perryren proposamena: ez dago identitaterik, uste egoeren eta horren bidez uste denaren arteko harreman sistematikoa baizik. Hau da, usteen objektuak kenduz, pertsonak eta objektuen arteko gradu ezberdinetako **harreman sistematikoa** da. Pertsona eta objektuaren

arteko harreman anitz daude, uste egoera anitz bezainbeste, indexikodun proposizioen bidez sailkatuko liratezkeenak.

- ‘De dicto’ perpausaren zentraltasuna (usteen filosofia tradizionalak defendatutakoa) kendu behar da. De dicto-k duen zentraltasuna indexikotasunaren izaera inplizituak sorturiko ilusioaren ondorio baita.
 - Uste egoerak eta uste objektuak bereizi behar dira (ezin dira indibidualizatu: ‘de re’). Zergatik uste aldaketa batek, ekintza aldaketa bat eragin duen azaltzeko, pertzepzioaren filosofiaren laguntza ere beharrezkoa da, bere auzia/aztergaia era delako. Hau da, usteen filosofiaren eta pertzepzioaren filosofiaren arteko aztergai komun litzateke. Beraz, indexiko esentzialen auzia erakusten diguna usteen filosofiak pertzepzioaren filosofiaren beharra duela da.
- 2) Usteen filosofia tradizionaleren proposamena litzateke: uste egoerak uste diren proposizioen modura sailkatzen ditugu. Baina, ez dago denok uste dugun proposizio komunik, hori defendatzeak falta den osagai kontzeptualaren auzira garamatza.
- 3) Proposizio erlatibizatuak: usteen testuingurua, ‘de re’ proposizioak, indibidualizatu (m. posibleen nozio semantikoa defendatu). Proposamen hau garrantzitsua da erabilgarria izan daitekeelako sailkatzerako. Uste bera modu ezberdinetan ustea ahalbidetzen duen planteamendua litzateke, uste egoerak aldakorrek baitira, usteen testuingurura aldatzen da. Eskuragarritasun mugatutako proposizio forma metafisiko positiboa litzateke. ‘De dicto’ proposizio usteak lekua lukete, elementu indexikorik gabeko perpausetan.

POSTSCRIPT

Berari egindako kritika batzuk beregain hartu, jorratu eta kritika batzuk eginen ditu gainera.

- Fregeren ikuspuntua intentsionalista tradizionalista kalsikoarekin bat egiten du. Alegia, usteak bere objektuak funtsean ezaugarritzen dituztela.
- Perry: usteak, sute egoera bateak egoteak inplikatzeko du, zirkunstantzia jakin batzuetan.
- Stalnaker: Perryk *informazio-educia* alde batera uzten du ezinebstekoa den indexiko esentzialen auzian.
- Hintikka: *proposizio diagonalak* eta honen garrantzia azpimarratzen du.
- Perry: informazio-educia eta proposizio diagonalak ezin dira identifikatu/ gauza beratzat hartu. Proposizio diagonalak ustea sailkatzeko beste modu bat da, ikuspegi tradizionalarekin bat egiten duena.

Bakoitza erabilgarria da zerbaiterako, beraz, kritika apala eginen du.